

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5339

EBAZPENA, Lanbide Heziketako sailburuordearena eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, 2015eko abenduaren 3koa, lan-esperientziaren bitartez eta/edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez hartutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduraren deialdia egiten duena.

Uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak, lan-esperientziaren bidez hartutako lanbide-gaitasunak egiaztatzeari buruzkoak, lan-esperientziaren bitartez eta/edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez hartutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko aplikatu beharreko prozedura bakarra ezartzen du hezkuntza- zein lan-alorrerako. Era berean, gaitasunen ebaluazio eta egiaztapen horren efektuak xedatzen ditu, ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren, kualifikazio eta lanbide-heziketari buruzkoaren, 8. artikuluan 2. zenbakiak hizpide dituena. Aipatu errege-dekretua oinarritzko esparru legala da estatuko lurralde osoan, aipatu prozedura garatzeko.

Irailaren 8ko 169/2015 Dekretuak, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua (EEI) sortzekoak, 3. artikuluan c zenbakian, xede eta funtzioen artean zehazten du pertsonen lan-esperientziaren bitartez eta/edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez hartutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko edo egiaztatzeko prozeduran laguntza ematea.

Azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarenak eta Enplegu eta Gizarte Politika Sailarenak, zeinaren bidez lan-esperientziaren bitartez eta/edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez hartutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko antolamendua eta prozedura ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan, prozeduraren antolaketa-egitura zehazten du 3. artikuluan eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren funtzioak eta parte-hartzea 4. eta 5. artikuluetan.

Deialdi hau Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak finantzatu du, eta Europako Gizarte Fundak kofinantzatu, lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko jardueren esparruan.

Ebazpen hau egiteko prozesuan, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua informatu da.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUGU:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da I. eranskinean jasotako gaitasun-unitateei lotutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura deitzea, azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuari jarraikiz, zeinaren bidez lan-esperientziaren bitartez eta/edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez hartutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko antolamendua eta prozedura ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan.

2. artikulua.– Deialdiaren izaera.

1.– Deialdi hau, aurretik aipatutako dekretuaren 7. artikulua 1. zenbakiarekin bat, irekia da gaitasun-unitate batzuetarako, eta berriazkoa, berriz, beste gaitasun-unitate batzuetarako (ikus I. eranskina).

2.– Hauetarako eskatu dira berriazko deialdiak:

a) «Izurriteak kontrolatzeko zerbitzuak» eta «Organismo kaltegarriak kontrolatzeko zerbitzuak kudeatzea» lanbide-kualifikazioetako gaitasun-unitateetarako, ASEPLAk eskatuta (Izurriteak Kontrolatzeko Enpresen Euskadiko Elkarte).

b) «Mintegi, lorategi eta lorezaintza-zentroetako jarduera osagarriak», «Eraikin eta lokaletako gainazalak eta altzariak garbitzea» eta «Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak» lanbide-kualifikazioetako gaitasun-unitateetarako, EHLABEk eskatuta (Enplegu Bereziko Erakundeen Elkarte).

c) «Gizarte-erakundeetan mendeko pertsonen gizarte- eta osasun-arreta ematea» eta «Pertsonen etxean gizarte- eta osasun-arreta ematea» lanbide-kualifikazioetako gaitasun-unitateetarako, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak antzemandako beharragatik, 500 plaza horietako bakoitzetik, aurreko deialdiaren batean izena eman zuten eta zenbait alderdi egiaztatzeke dituzten pertsonentzat, baldin eta lor baditzaizkete, eta 50 horietako bakoitzetik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiak eskatuta ezohiko behar gisa, Usurbilgo Udalak eskatuta.

3. artikulua.– Informatzeko, orientatzeko eta aurrez izena emateko ikastetxeak.

Prozeduran parte hartu nahi duten pertsonen, baldin eta ebazpen honen 4. artikulua betekizunak betetzen badituzte, II. eranskinean jasotako ikastetxeetara jo dezakete.

4. artikulua.– Parte-hartzaileen betekizunak.

1.– Prozeduran parte hartu nahi duten pertsonen azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren – zeinaren bidez lan-esperientziaren bitartez eta/edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez hartutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeke antolamendua eta prozedura ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan– 8.1 artikuluan zehaztutako betekizunak bete behar dituzte nahitaez; hots, hauek:

a) Espainiar nazionalitatea izatea, Europako Erkidegoko herritartasunaren erregistro-ziurtagiria edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela lortu izana, edo Espainian bizilekua izateko baimena edo bizilekua izateko eta lan egiteko baimena indarrean izatea, atzerriartasunari eta immigrazioari buruzko Espainiako araudian ezarritako terminoetan.

b) Izena ematean 18 urte beteta izatea, I. mailako prestakuntzei dagozkien gaitasun-unitateen kasuan, eta 20 urte II. eta III. mailakoen kasuan.

c) Egiaztatu nahi dituzten lanbide-gaitasunen inguruko lan-esperientzia edo prestakuntza izatea:

– Lan-esperientziaren kasuan. Deialdiaren aurreko azken 10 urteetan, 3 urte behintzat justifikatzea, eta, gutxienez, lan egindako 2.000 ordu guztira. I. mailako gaitasun-unitateetarako 2 urteko lan-esperientzia eskatuko da, eta, gutxienez, lan egindako 1.200 ordu guztira.

– Prestakuntzaren kasuan. Gutxienez, I. eranskinean zehazten diren orduak egiaztatzea.

2.– Gainera, lanbide-kualifikazioetako gaitasun-unitateetarako izen-ematea berriazko deialdiaren babespean egiten denean, betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) «Izurriteak kontrolatzeko zerbitzuak» lanbide-prestakuntzako gaitasun-unitateetarako, Euskadiko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean izena emanda dagoen enpresa batean lan egiten dutela (edo lan egin dutela) eta aplikatzailearen oinarrizko txartela edo kualifikatua dutela egiaztatzea.

b) «Organismo kaltegarriak kontrolatzeko zerbitzuak kudeatzea» lanbide-prestakuntzako gaitasun-unitateetarako, Euskadiko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean izena emanda dagoen enpresa batean lan egiten dutela (edo lan egin dutela) eta txartel kualifikatua dutela egiaztatzea.

c) «Mintegi, lorategi eta lorezaintza-zentroetako jarduera osagarriak», «Eraikin eta lokaletako gainazalak eta altzariak garbitzea» eta «Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak» lanbide-kualifikazioetako gaitasun-unitateetarako, prozedurako betekizun gisa eskatzen den lan-esperientzia EHLABEko enpresetan guztiz edo partzialki garatu dutela (edo garatzen ari direla) egiaztatzea. Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako gordetako plazetarako, gutxienez % 33ko desgaitasuna dutela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da, Euskadiko foru-aldundietako batek emandakoa.

d) «Gizarte-erakundeetan mendeko pertsonen gizarte- eta osasun-arreta ematea» eta «Pertsonen etxean gizarte- eta osasun-arreta ematea» lanbide-kualifikazioetako gaitasun-unitateetarako, berriazkoa 2. artikuluan c) zenbakiaren arabera, hauek egiaztatu beharko dituzte:

1) Aurreko deialdietara (azkena izan ezik) aurkeztu diren pertsonak: izena eman zuten deialdia adierazten duen idazkia. Pertsona horiek ebaluazio-fasean eman beharko dute izena zuzenean eta, borondatez, aholkularitza-fasean.

2) Ezohiko behar baten babespeko pertsonen hauek egiaztatu beharko dituzte:

– Langabe-egoera.

– Mendeko pertsonen etxean gizarte- eta osasun-arreta ematearekin erlazionatutako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza ez-formaleko 300 ordu baino gehiagoko ikastaro bat egin izana edo prestakuntza-modulu egiaztatgarriren bat egin izana.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 2015eko martxoaren 25eko Ebazpenaren bidez –horren bidez argitaratzen da enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2015eko ekitaldiko laguntzen deialdia– emandako laguntzen onuradun den tokiko edo eskualdeko erakunde batekin lan-eskaintza irmo bat izatea.

– DBE jasotzen egotea.

3.– Hauetako ezaugarriren bat duten pertsonen ezingo dute parte hartu deialdi honetan:

a) Deialdiaren barruko gaitasun-unitateen inguruko Lanbide Heziketako titulu edo profesionaltasun-ziurtagiri bat izatea.

b) «Pertsonen etxean gizarte- eta osasun-arreta ematea» eta «Gizarte-erakundeetan mendeko pertsonen etxean gizarte- eta osasun-arreta ematea» prestakuntzei dagokienez, edozein erakunde eskudunek baliokidetzat hartutako titulu bat izatea.

c) Lanbide-gaitasunak egiaztatzekeko prozedura batean parte hartzen aritzea eta egiaztatu beharreko gaitasun-unitateak deialdiaren barrukoak berak izatea.

5. artikulua.– Prozeduran aurrez izena emateko eskaera.

1.– Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak, salbu eta Euskal Autonomia Erkidegoak lanbide-prestakuntza beraren barruko gaitasun-unitateak ebaluatzeko eta egiaztatzeko aurrez egindako deialdietan parte hartu badute, aurrez izena emateko eskaera egin behar dute, deialdi honen III. eranskineko eredu ofizialaren bidez. Eredua Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunean deskarga daiteke (www.ivac-eei.eus).

2.– Hautagaiek ez badituzte betetzen eskakizun guztiak edo datu faltsuak ematen badituzte, galdu egingo dute deialdian parte hartzeko eskubidea, eta ordaindutako tasak ez zaizkie itzuliko.

3.– Ebazpen honen 7. artikulua adierazten duen epean aurkeztuko dira aurrez izena emateko eskabideak, behar bezala beteta, II. eranskinak adierazten duen edozein ikastetxetan. «Gizarte-erakundeetan mendeko pertsonen gizarte- eta osasun-arreta ematea» eta «Pertsonen etxean gizarte- eta osasun-arreta ematea» prestakuntzetarako aurreko izen-emateak, betekizunak betetzen badituzte ere onartu ezin direnak, hurrengo deialdietarako aintzat hartuko dira, lehenetsun-irizpide gisa.

4.– Gainera, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri-administrazioen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzkoak, 38.4 artikuluan adierazten duen edozein tokitan aurrez dezakete.

5.– Posta-bulegoren batean aurkezten badute, irekita eramango dute gutun-azala, noiz aurkeztu duten adieraz dezan bulegoak.

6. artikulua.– Aurrez izena emateko eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Prozeduran parte hartzeko betekizun orokorrak zein berariazkoak betetzen direla egiaztatzeko, dokumentu hauek (jatorrizkoa eta kopia) aurkeztuko dira aurrez izena emateko eskabidearekin batera:

1.– NANaren edo AIZren fotokopia edo Europako Erkidegoko herritartasunaren erregistro-ziurtagiria (edo jaioterriko nortasun-agiria edo indarrean den pasaporte), edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela, edo Espainian bizitzeko edo lan egiteko indarrean den baimenaren titular izatea. Europako Erkidegoko herritartzat erregistratu izanaren ziurtagiriaren fotokopia aurkezten bada, jaioterriko nortasun-agiriaren kopia ere aurkeztuko da, edo pasaportearena, eskatzaileak ez badu baimentzen datuen kontsulta egitea Presidentzia Ministerioak nortasun-datuak egiaztatzeko duen sisteman –indarrean egon behar du pasaporteak–.

2.– Izangaiaren lanbide- eta prestakuntza-historiala, Europako curriculum vitaeren ereduarekin bat edo, hori ezean, ebazpen honen 4. artikuluan zehaztutako betekizunen bat betetzen dela egiaztatzeko agiriak. Hori horrela,

a) Prestakuntza ez-formala alegatuz gero, eskatutako gaitasun-unitateen gutxienezko prestakuntza-orduak dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dira, edukiak, prestakuntza-orduak eta eman zituen erakundea aipatuta.

b) Lan-eskarmentua alegatzen bada prozeduran aurrez izena emateko eskatzeko, frogagiri hauek aurkeztuko dira:

– Soldatapeko langileak:

– Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren, Itsasoko Gizarte Institutuaren edo afiliatutako mutualitatearen ziurtagiria, enpresaren izena, lan-kategoria (kotizazio taldea) eta kontratazio-aldia ageri direna, hala nola.

– Lan-esperientzia eskuratu duen enpresaren lan-kontratua edo ziurtagiria, kontratuaren iraupena berriaz jasotzen duena, hauek ere adierazita:

– Egindako jarduerak.

– Jarduera zer denbora-tartean garatu den, eskatu nahi diren gaitasun-unitateekin lotutako postuetako batean lan egiten dela adierazita. Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunean eredu bat dago (www.eei-ivac.eus).

– Langile autonomoak eta norberaren konturako langileak:

– Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren dagokion araubide berezian alta-egoeran egon den aldiak, eta

– Egindako jardueraren ziurtagiria, hauek adierazita:

– Egindako jarduerak.

– Jarduera zer denbora-tartean garatu den, eskatu nahi diren gaitasun-unitateekin lotutako postuetako batean lan egiten dela adierazita. Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunean eredu bat dago (www.eei-ivac.eus).

– Langile boluntarioak eta bekadunak:

– Laguntzen jardun duten erakundearen ziurtagiri bat, guztira emandako orduen kopurua berriaz adierazten duena (baremazio-helburuetarako, orduen kopurua zati zortzi egingo da egun kopurua kalkulatzeko). Ziurtagiriak, gainera, hauek adieraziko ditu:

– Egindako jarduerak.

– Jarduera zer denbora-tartean garatu den, eskatu nahi diren gaitasun-unitateekin lotutako postuetako batean lan egiten dela adierazita. Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunean eredu bat dago (www.eei-ivac.eus).

3.– Eskatutako lan-eskarmentuaren edo prestakuntzaren baldintzak betetzen dituzten 25 urtetik gorako pertsonak, aurretik adierazitako dokumentuen bidez baldintzok egiaztatu ezin dituztenean, prozeduran aurrez izena eman ahaliko dute, behin-behineko izaerarekin. Lan-esperientzia edo prestakuntzarako ikaskuntza ez-formalak zuzenbidez onartutako frogaren baten bidez justifikatu dituzte.

4.– Izangaiek exijitutako betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzen duten agirien jatorrizkoa eta kopia aurkeztu beharko dituzte, 4. artikuluan berriaz deitutako gaitasun-unitateetarako zehaztutakoak barne. Jatorrizko agiriak aurrez izena emateko unean itzuliko zaizkio eskatzaileari. Fotokopiak prozeduran onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratu eta bi hilabetera suntsitu ahal izango dira.

7. artikulua.– Aurrez izena emateko eskabideak aurkezteko epea.

Aurrez izena emateko eskabideak aurkezteko epea honako hau izango da:

1.– 2015eko abenduaren 21etik 23ra eta 2016ko urtarrilaren 11tik 25era (biak barne), «Gizarte-erakundeetan mendeko pertsonen gizarte- eta osasun-arreta ematea» eta «Pertsonen etxean gizarte- eta osasun-arreta ematea» prestakuntzetarako, ebazpen honen 2. artikuluan c) zenbakian jarraikiz berriazko izaeraz eskainitakoetarako.

2.– 2016ko urtarrilaren 11tik 25era (biak barne), gainerako lanbide-kualifikazioetarako.

8. artikulua.– Prozeduran parte hartzeko onartzea edo baztertzea. Erreklamazioak.

1.– Prozeduran parte hartu nahi duten pertsonak onartzeko edo baztertzeko, azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren –zeinaren bidez lan-esperientziaren bitartez eta/edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez hartutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko antolamendua eta prozedura ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan– 9.2 artikuluan zehaztutakoa jarraituko da.

2.– Ebaluatu beharreko pertsonen gehieneko kopuru bat zehaztuta duten gaitasun-unitateen kasuan, betekizunak betetzen dituzten aurrez izena emateko eskabideen kopurua aipatu gehienekoa baino handiagoa bada, honako baremo honen arabera lortutako puntuazioa adieraziko da:

a) «Osasun-garraioa» eta «Biktima anitzentzako eta katastrofeetako osasun-arreta» prestakuntzetarako, lehentasun hauek zehazten dira:

1) Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-garraioko enpresetan lan egitea edo lan egin izana.

2) Azken 10 urteetan lanbide-prestakuntzaren berriazko esparruan lan-eskarmentu handiagoa lortu izana egiaztatzea, lan egin den enpres(ar)en ziurtagiri bat eta lan-bizitzaren laburpen bat aurkeztuta.

3) Berdinketarik bada, Enplegu Zerbitzu Publikoko bulego batean eskatzaile izatea eta, oraindik ere berdinketarik bada, nagusiagoa izatea adinez.

b) Deitutako lanbide-kualifikazioetako gainerako gaitasun-unitateei dagokienez:

1) Azken 10 urteetan lanbide-prestakuntzaren berriazko esparruan lan-eskarmentu handiagoa lortu izana egiaztatzea, lan egin den enpres(ar)en ziurtagiri bat eta lan-bizitzaren laburpen bat aurkeztuta.

2) Berdinketarik bada, Enplegu Zerbitzu Publikoko bulego batean eskatzaile izatea eta, oraindik ere berdinketarik bada, nagusiagoa izatea adinez.

3.– Agirietan izandako akats, oker edo gabeziak jasotzen dituen baremazio-zerrenda aurrez izena emateko epea amaitu eta 15 egun baliodunetik aurrera argitaratuko da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean (<https://www.euskadi.eus>) eta Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunean (www.ivac-eei.eus).

4.– Egiaztagiririk falta duten edo egiaztagiri akastunik aurkeztu duten pertsonen 10 egun balioduneko epea izango dute akatsa edo ez-egitea konpontzeko.

5.– Prozeduran parte hartzeko onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda akatsak konpontzeko epea amaitu eta 5 egunetik aurrera argitaratuko da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean (<https://www.euskadi.eus>) eta Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunean (www.ivac-eei.eus).

6.– Eskatzaileek 5 egun balioduneko epea izango dute, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, aurkeztu dituzten agirien baremazioa erreklamatzeko.

7.– Prozeduran parte hartzeko onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartutako eta baztertutako pertsonen erreklamazio-aldia amaitu eta hurrengo egunetik aurrera argitaratuko da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean (<https://www.euskadi.eus>) eta Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunean (www.ivac-eei.eus).

8.– Behin betiko zerrendaren aurka, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariari edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntza eta Diru Sarrerak Bermatzeko zuzendariari, eta elkarrekin emandako ebazpen bidez ebartziko dute.

9. artikulua.– Aholkularitzarako izena ematea.

1.– Hautapen-prozesuan onartu dituzten eta aholkularitzarako tasa –24 euro– ordaindu duten pertsonak joko dute aholkularitza-fasera. Deialdian ezarritako tasak epearen barruan ordaindu ezean, prozeduran parte hartzeari uko egiten zaiola ulertuko da, eta prozeduran atzera egite hori Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariaren edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntza eta Diru Sarrerak Bermatzeko zuzendariaren ebazpen bidez deklaratu beharko da.

2.– Honako hauek ez dute aholkularitza-tasarik ordaindu beharko:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena eman duten langabeek.

b) Terrorismoaren biktimek, betiere, larritasun bereziko kalte pertsonal fisiko edo psikofisikoak izan dituztela egiaztatzen badute; haien ezkontideek; antzeko harreman afektiboa izanik, haiekin modu iraunkorrean bizi direnek; eta haien seme-alabek.

3.– Ez dute tasarik ordaindu behar izango ezta ere lanbide-prestakuntza bereko gaitasun-unitateetarako aurreko deialdietan parte hartu duten eta aholkularitza berriro egin nahi ez duten pertsonak.

4.– Aholkularitzarako izena emateko eskabideak aurkezteko tokiak eta epeak.

a) Lanbide-prestakuntzekin bat, izena emateko ikastetxeak II-A eranskinean zehaztutakoak dira.

b) Izena emateko epea hau izango da prestakuntza guztietarako: 2016ko martxoaren 14tik apirilaren 8ra (biak barne).

5.– Deialdi honen IV. eranskineko ereduaren bidez emango da izena. Eredua Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunean deskarga daiteke (www.ivac-eei.eus).

6.– Aholkularitza-fasearen bilakaera: aurretik aipatutako dekretuaren 12. artikulua araberaren egingo da. Parte-hartzaileak ez badira joaten talde-bilerara edo bakarkako bilerara eta arrazoia justifikatzen ez badute, prozeduran parte hartzeari utziko diote, eta galdu egingo dute prozeduran parte hartzeko onartua izateak ematen duen eskubide oro. Baldin eta bilera igaro eta hiru egunetan, idatziz eta frogagiriak aurkeztuta, behar bezala justifikatzen badute bilerara ez joateko arrazoia, beste bilera bat hitzartuko da, aholkularitza emateko epeen barruan.

7.– Aholkulari bat ezin bada izangai batekin harremanetan jarri ohiko bitartekoen bidez, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunearen bitartez egingo du (www.ivac-eei.eus), eta jakinarazpen-ondorioak izango ditu.

8.– Aholkularitza-fasea egiteko baimena duten ikastetxe publikoek zenbait izangaiantzako fasea beste ikastetxe publiko itundu edo enpresa batzutan egin ahal izango dute, hala behar denean.

10. artikulua.– Ebaluazio-faserako tokiak eta izena ematea.

1.– Ebaluazio-fasean izena emateko ikastetxeak II-B eranskinean zehaztutakoak dira.

2.– Ebaluazio-faserako izen-ematea aholkularitza amaitu ondoren egingo da eta hauek izango dira epeak: 2016ko maiatzaren 16tik ekainaren 15era (biak barne).

3.– Deialdi honen IV. eranskineko ereduaren bidez emango da ebaluaziorako izena. Eredua Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunean deskarga daiteke (www.ivac-eei.eus).

4.– Izena emateko, 12 euroko tasa ordaindu beharko da izena emandako gaitasun-unitate bakoitzeko. Zehaztutako tasa deialdian adierazitako epeetan ordaintzen ez bada, ordaindu ez diren gaitasun-unitateen ebaluazioan parte hartu nahi ez dela ulertuko da, salbuespen-kasuetan izan ezik, ebazpen honen 9. artikuluaen 2. zenbakiari jarraikiz:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena eman duten langabeek.

b) Terrorismoaren biktimek, betiere, larritasun bereziko kalte pertsonal fisiko edo psikofisikoak izan dituztela egiaztatzen badute; haien ezkontideek; antzeko harreman afektiboa izanik, haiekin modu iraunkorrean bizi direnek; eta haien seme-alabek.

5.– Ebaluazio-fasearen bilakaera: aurretik aipatutako dekretuaren 12. puntuan xedatutakoaren arabera egingo da. Izena emandako gaitasun-unitate bakoitzaren ebaluazioa egingo da, eta, banakako ebaluazioaren planean egin beharreko proba-moten arabera, ebaluazio-faserako izena emateko tokiez bestelako egoitza edo ikastetxe batzuk aukera daitezke horiek egiteko.

6.– Behin-behineko ebaluazio-aktak urriaren 28an argitaratuko dira, deialdi guztietarako, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean (<https://www.euskadi.eus>) eta Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunean (www.ivac-eei.eus).

7.– Behin-behineko emaitza honela adieraziko da: «frogatua» edo «ez frogatua». Horren kontrako erreklamazioa aurkez diezaioke interesdunak Ebaluazio Batzordeko presidenteari 5 egun balioduneko epean, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean argitaratzen denetik kontatzen hasita (<https://www.euskadi.eus>).

8.– Ebaluazio-batzordeek azaroaren 8tik aurrera argitaratuko dituzte behin betiko aktak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean (<https://www.euskadi.eus>), Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren webgunean (www.ivac-eei.eus) eta II. eranskinen zehaztutako Lanbide Heziketako ikastetxeetan.

9.– Behin betiko ebaluazioaren aurka, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dio ebaluatutako pertsonak Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariari edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntza eta Diru Sarrerak Bermatzeko zuzendariari, eta elkarrekin emandako ebazpen bidez ebatziko dute.

11. artikulua.– Ordain ekonomikoak.

Aholkulari eta ebaluatzaileek ordain ekonomikoak jaso ahal izango dituzte, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoan lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko antolamendua eta prozedura zehazten dituen azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren I. eranskinen adierazitakoak.

12. artikulua.– Lanbide-gaitasuna egiaztatzeko eta erregistratzeko fasea.

1.– Egiaztatzeko eta erregistratzeko fasea azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren –zeinaren bidez lan-esperientziaren bitartez eta/edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez hartutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko antolamendua eta prozedura ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan– 13. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da.

2.– Lanbide Heziketako Sailburuordetzak azaroaren 21etik aurrera egiaztatuko ditu aitortutako gaitasun-unitateak, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren bitartez, ebaluazio-batzorde bakoitzak Lan-esperientziaren bidez hartutako lanbide-gaitasunak aitortzeko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren III-A ereduaren arabera egindako aktei jarraikiz.

3.– Ebaluazio positiboa izan duten pertsonak 30 egun izango dituzte beren ziurtagiriak jasotzeko, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuak adieraziko dien ikastetxeetan. Denbora hori igarota, aipatu institutuaren egoitzan jaso beharko dute.

13. artikulua.– Prestakuntza-plana.

Lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez hartutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesu osoa amaitzean, deialdi honetan ezarritako prozeduran parte hartu duten guztiei idazki bat igorriko die Ebaluazio Batzordeak, honakoa jasoko duena, dagokionaren arabera:

1.– Prestakuntza-aukerak eta dagozkion orientabideak, frogatu gabeko gaitasun-unitateak hurrengo deialdietan egiaztatu ahal izateko.

2.– Prestakuntza-aukerak eta dagozkion orientabideak, erlazionatutako profesionaltasun-ziurtagiri bat edo Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko beharrezko prestakuntza osatu ahal izateko.

14. artikulua.– Argitalpena.

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratuko da, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean laburpen bat argitaratuko da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, haren kontrako gorako errekurtsioa aurkez dakiok Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari edo Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, eta elkarrekin emandako ebazpen bidez ebartziko dute.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 3a.

Lanbide Heziketako sailburuordea,
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

2015eko abenduaren 21a, astelehena



Programa financiado por el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte y cofinanciado por el Fondo Social Europeo

I. ERANSKINA

DEIALDIAREN BARRUKO GAITASUN-UNITATEAK

Mota (1)	Muga (2)	Gaitasun-unitatea		Ordua k (4)	Maila (3)	Lanbide- kualifikazioaren sartuta	Lanbide-ziurtagirian sartuta	Lanbide Heziketako tituluan sartuta
		Kodea	Izena					
I	75	UC0099_2	Arku elektifikoa eta elektrodo estaliak erabiliz soldatzea	400	II	FME035_2: Soldadura (RD 295/2004)	FME0110: Elektrodo estali bidezko soldadura eta TIG soldadura (15/25/2011 Errege Dekretua)	Soldadura eta galdaragintzako teknika (430/2009 Errege Dekretua)
		UC0100_2	Gas babeslea eta elektrodo ez-konsumigarriak erabiliz arku-soldadurak egitea (TIG)	370				
		UC0098_2	Oxigeno bidezko soldadura eta proiektzio termikoak egitea	200	II	FME035_2: Soldadura (RD 295/2004)	FME0210: Oxigeno bidezko soldadura eta MIG/MAG soldadura (15/25/2011 Errege Dekretua)	
		UC0101_2	Gas babeslea eta elektrodo konsumigarriak (MIG, MAG) erabiliz arku-soldadurak eta arku-proiektzio termikoak egitea	430				
		UC1142_2	Hodiak trazatzea eta mekanizatzea	150	II	FME351_2: Industria-hodierriko instalazioen fabrikazioa eta muntaketa (16/99/2007 Errege Dekretua)	FME0108: Industria-hodierriko instalazioen fabrikazioa eta muntaketa (12/16/2009 Errege Dekretua)	
		UC1143_2	Hodiak konformatzea eta armatzea	160				
		UC1144_2	Hodi-instalazioak muntatzea	190				
		UC1139_2	Xaflak eta profila trazitzea eta ebakitzea	220	II	FME350_2: Galdaragintza, arotzeria eta metal-erakuntzak muntatzea (16/99/2007 Errege Dekretua)	FME350_2: Galdaragintza, arotzeria eta metal-erakuntzak muntatzea (16/99/2007 Errege Dekretua)	
		UC1140_2	Xaflak eta profila mekanizatzea eta osatzea	260				
		UC1141_2	Metal-erakuntzetako eta -arotzeriako elementuak eta egiturak muntatu eta instalatzea	120				
		UC0237_3	Giza baliabideen kudeaketa eta kontrol administratiboa egitea	210	III	ADG084_3: Giza baliabideen administratzea (295/2004 Errege Dekretua, 10/7/2008 Errege Dekretuak eguneratua)	ADG084_3: Giza baliabideen kudeaketa integratua (12/10/2009 Errege Dekretua)	
		UC0238_3	Giza baliabideei buruzko informazioa eta haien kontratazioa kudeatzea	150				
		UC0987_3	Euskarri konbenzionalak eta euskarri informatikoko informazio- eta artxibo-sistemak administratzea	120				
		UC0233_2	Informazioa eta dokumentazioa kudeatzeko aplikazio ofimaticoen erabilzea	190				
UC0498_3	Enpresaren finantza-beharrak zehaztea	120						
UC0499_3	Finantza-baliabideei buruzko informazioa eta haien kontratazioa kudeatzea	140						
I	100	UC0500_3	Aitortzea eta aurrekontua kudeatzea eta kontrolatzea	100	III	ADG157_3: Finantza-kudeaketa (10/87/2005 Errege Dekretua, 10/7/2008 Errege Dekretuak eguneratua)	ADGN0108: Enpresen finantzaketa (12/10/2009 Errege Dekretua)	Administrazio eta finantzako goimailako teknika (257/2012 Errege Dekretua)
		UC0233_2	Informazioa eta dokumentazioa kudeatzeko aplikazio ofimaticoen erabilzea	190				
		UC0982_3	Zuzendaritzaren komunikazioak autonomiaz administratzea eta kudeatzea	80	II	ADG310_3: Despatxu eta bulegoetako dokumentu- eta kudeaketa-egintza (10/7/2008 Errege Dekretua)	ADG0308: Despatxu eta bulegoetako dokumentu- eta kudeaketa-egintza (6/45/2011 Errege Dekretua)	
		UC0986_3	Hainbat formatutan dokumentazioa eta aurkezpen profesionalak prestatzea	140				
		UC0987_3	Euskarri konbenzionalak eta euskarri informatikoko informazio- eta artxibo-sistemak administratzea	120	III	ADG310_3: Despatxu eta bulegoetako dokumentu- eta kudeaketa-egintza (10/7/2008 Errege Dekretua)	ADG0308: Despatxu eta bulegoetako dokumentu- eta kudeaketa-egintza (6/45/2011 Errege Dekretua)	
		UC0988_3	Espedienteak eta dokumentazio juridikoa eta enpresaren prestatzea eta erakunde eta administrazio publikoetan aurkeztea	150				
		UC0980_2	Giza baliabideetako administrazio-laguntzako jarduerak egitea	90	II	ADG310_3: Despatxu eta bulegoetako dokumentu- eta kudeaketa-egintza (10/7/2008 Errege Dekretua)	ADG0308: Despatxu eta bulegoetako dokumentu- eta kudeaketa-egintza (6/45/2011 Errege Dekretua)	
		UC0979_2:	Diruzaintzako administrazio-kudeaketa egitea	90				

2015eko abenduaren 21a, astelehena



Programa financiado por el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte y cofinanciado por el Fondo Social Europeo.



DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



UNIÓN EUROPEA
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro

Mota (1)	Muga (2)	Gaitasun-unitatea		Ordura k (4)	Maila (3)	Lanbide- kualifikazioan sartuta	Lanbide-zintagrian sartuta	Lanbide Heziketako tituluan sartuta
		Kodea	Izena					
		UC0231_3	Kontabilitate eta zergak kudeatzea	240	III	(5) ADG082_3: Kontabilitate- eta ikuskapen-kudeaketa (295/2004 Errege Dekretua, 107/2008 Errege Dekretuak eguneratua)	(6) ADG0108 «Ikuskapen- eta administrazio-kudeaketa» (12/10/2009 Errege Dekretua)	
I	125	UC0120_	Erakinetan edo erakin multzoetan sonuko irati- ofisioko eta telebistako seinaleak harzako instalazioak muntatzea eta mantentzea (antena eta kable bidezkoak)	180	II	ELE043_2: Erakinetan telekomunikazio-azpiegiturak muntatzea eta mantentzea (295/2004 Errege Dekretua)	ELES0108: Erakinetan telekomunikazio-azpiegiturak muntatzea eta mantentzea (12/14/2009 Errege Dekretua)	
		UC0121_2	Hiritarren esku dagoen telefonia-zerbitzura sartzeko instalazioak eta sarriera kontrolatzeko instalazioak muntatzea eta mantentzea (barne-telefonía eta bideo-alezaintza)	150				
		UC0820_2	Batez ere etxebizitzarako erabiltzen diren erakinetan behe- tentsioko instalazio elektrikoak muntatzea eta mantentzea	170				
		UC0821_2	Merkataritzako eta industriako erakinetan eta bulego-erakinetan behe- tentsioko instalazio elektrikoak muntatzea eta mantentzea	230				
		UC0822_2	Exebizitzetan eta industria txikietan automatismo- instalazioak muntatzea eta mantentzea	240	II	ELE257_2: Behe- tentsioko instalazio elektrikoak muntatzea eta mantentzea (11/15/2007 Errege Dekretua)	ELEE0109: Behe- tentsioko instalazio elektrikoak muntatzea eta mantentzea (683/2011 Errege Dekretua)	Instalazio elektrikoetako eta automatikoetako teknikaria (66/2010 Errege Dekretua)
		UC0823_2	Behe- tentsioko aireko sare elektrikoak muntatzea eta mantentzea	120				
		UC0824_2	Behe- tentsioko lurpeko sare elektrikoak muntatzea eta mantentzea	110				
		UC0825_2	Makina elektrikoak muntatzea eta mantentzea	180				
		UC0836_2	Eguzki- instalazio fotovoltaiako muntatzea	210	II	(5) ENA26_1_2: Eguzki- instalazio fotovoltaiako muntatzea eta mantentzea (11/14/2007 Errege Dekretua)	(6) ENAE0108: Eguzki- instalazio fotovoltaiako muntatzea eta mantentzea (1387/2008 Errege Dekretua)	
		UC0837_2	Eguzki- instalazio fotovoltaiako mantentzea	60				
		UC0069_1	Ibigoaren mantentze- lan prebentiboa egitea eta haren material- hornidura kontrolatzea	100	I			
		UC0070_2	Pazienteari oinarritako bizi- euskaria ematea, eta, bizi- euskarri aurreratuan, laguntza ematea	160	II	SAN025_2: Osasun- garraioa (295/2004 Errege Dekretua)	SANT0208: Osasun- garraioa (7/10/2011 Errege Dekretua)	
		UC0071_2	Pazientea dagokion osasun- ekiera eramatea	100				
		UC0072_2	Laguntza psikologiko eta sozialeko teknikak aplikatzea krisi- egoeretan	40				
UC0072_2	Laguntza psikologiko eta sozialeko teknikak aplikatzea krisi- egoeretan	40						
UC0360_2	Biktima antzak eta katastrofeak dauden agerokietan, osasun- logistika antolatzea eta garatzen lanean parte hartzea	100	II	SAN122_2: Biktima antzetzako eta katastrofeetako osasun- arreta (1087/2005 Errege Dekretua)	SANT0108: Biktima antzetzako eta katastrofeetako osasun- arreta (7/10/2011 Errege Dekretua)			
UC0361_2	Biktima antzei hasierako osasun- laguntza ematea	140						
UC0362_2	Larrialdi- planak eta aurreikus daitezkeen arrisku- etarako balibideak prestatzen eta gauzatzen laguntzea	60						

2015eko abenduaren 21a, astelehena



Programa financiado por el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte y cofinanciado por el Fondo Social Europeo

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA-SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



UNIÓN EUROPEA
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro

B	550 (5)	UC0249_2 UC0250_2 UC0251_2	Arreta fisikoa ematea etxean, gizarte- eta osasun-arretaren beharra dutenei Arreta psikosoziala ematea etxean, arreta sozio-sanitarioaren beharra dutenei Bizikidetzaren unitatearen kudeaketa eta funtzionamenduari lotutako jarduerak gauzatzea	170 210 100	II	SSCO89_2: Pertsonen etxean, gizarte- eta osasun-arreta ematea (295/2004 Errege Dekretua)	SSCS0108 «Pertsonen etxean, gizarte- eta osasun-arreta ematea» (1379/2008 Errege Dekretua)	Mendekotasun egotzen dauden pertsonen arreta egiteko teknikan (250/2012 Errege Dekretua)
B	550 (5)	UC1016_2 UC1017_2 UC1018_2 UC1019_2	Pertsonen eta beraien ingurunearen erakundeetan arreta emateko esku-hartzeak prestatzea eta laguntzea, diziplinarietako labeak adierazi bezala Mendeko pertsonen erakundeetan arreta fisikoa ematea Mendeko pertsonen erakundeetan gizarte- eta osasun-arreta ematea Mendeko pertsonen erakundeetan arreta psikosoziala ematea	100 70 70 130	II	SSC320_2: Gizarte-erakundeetan mendeko pertsonen gizarte- eta osasun-arreta ematea (1368/2007 Errege Dekretua)	SSCS0208 «Gizarte-erakundeetan mendeko pertsonen gizarte- eta osasun-arreta ematea» (1379/2008 Errege Dekretua)	
B	80	UC0078_2 UC0079_2 UC0075_2	Izurriak kontrolatzeko bitarteko eta produktuen prestatzea eta garatzea Izurriak kontrolatzeko bitarteko eta produktuen erabilteza Lanpostuan laneko arriak prebenitzeko neurriak hartzea	100 140 50	II	SEA028_2: Izurriak kontrolatzeko zerbizuzak (295/2004 Errege Dekretua)	SEAG0110 «Izurriak kontrolatzeko zerbizuzak» (1536/2011 Errege Dekretua)	
B	30	UC0799_3 UC0800_3 UC0801_3 UC0802_3	Organismo kallegeriak kontrolatzeko prozesu berrizko dokumentazioa kudeatzea Organismo kallegeriak kontrolatzeko plana ezartzea, abiaburuko egoeraren arabera, eta heren gauzatzea ikuskatzea Biodizien, produktu fitosanitarioen eta hauen erabilteko beharrezko bitartekoak bilagratzea eta garraio antolatzea Organismo kallegeriak kontrolatzeko zerbizuzak ematean laneko eta ingurunean arriak aurrea hartzeko neurriak hartzea	50 160 140 80	III	SEA251_3: Organismo kallegeriak kontrolatzeko zerbizuzak kudeatzea 814/2007 Errege Dekretua	SEAG0311: Organismo kallegeriak kontrolatzeko zerbizuzak kudeatzea 624/2013 Errege Dekretua	
B	60 (6)	UC0520_1 UC0521_1 UC0522_1	Mintegi eta lorezaintza-zentroetan landareak elozietako eta mantentzeko jarduerak osagarriak egitea Lorategi, parke eta berdeguneak instalatzeko jarduerak osagarriak egitea Lorategi, parke eta berdeguneak mantentzeko jarduerak osagarriak egitea	90 90 70	I	AGA164_1: Mintegi, lorategi eta lorezaintza-zentroetako jarduerak osagarriak (1228/2006 Errege Dekretua)	AGAO0108: Mintegi, lorategi eta lorezaintza-zentroetako jarduerak osagarriak (1375/2008 Errege Dekretua)	Nekazaritzako lorezaintzako eta lore-konposizioko oinarriko profesionala (127/2014 Errege Dekretua) Baso-ustiaperneko oinarriko profesionala (356/2014 Errege Dekretua)
I	50	UC1326_1 UC1327_1 UC1328_1 UC1329_1	Eskaerak eragin-kortasunez eta eragimenez prestatzea, ezarritako prozedurei jarraituz Eragiketa osagarriak egitea saltokian produktuak jarri, antolatu eta atontzeko Produktuak manipulatzea eta lekuz aldatzea merkataritza-azaleran barrena eta hurbilean banatzeko, esku-ko transpaketeak eta organo erabiliz Bezeroari arreta eta informazio operatibo, egituratu eta protokolarizatu ematea	40 90 50 50	I	COM142_1: Merkataritzako jarduerak osagarriak (1179/2008 Errege Dekretua)	COM10211: Merkataritzako jarduerak osagarriak (1694/2011 Errege Dekretua)	Merkataritza-zerbitzu oinarriko profesionala (127/2014 Errege Dekretua)
I	50	UC2104_2 UC2105_2 UC2106_2 UC0239_2	Kalitateko saltoki txiki bat bultzatzea eta kudeatzea Saltoki txiki bateko salmenta-puntua antolatzea eta animatzea Saltoki txikiaren erantzun- eta hornikuntza-ahalmena bermatzea Produktuak etaleko zerbizuzak egun dauden merkaturatze-biden bitartez saltzea	100 100 60 160	II	COM631_2: Saltoki txiki kudeatzeko jarduerak (889/2011 Errege Dekretua)	COM10112: Saltoki txiki kudeatzeko jarduerak (614/2013 Errege Dekretua)	Merkataritza-jardueretako teknikan (399/2013 Errege Dekretua)

2015eko abenduaren 21a, astelehena



I	100	UC1792_2	Laneko arriskuen prebenzioa kudeatzea sailbiki brikietan	60					
